

2. HE

ENTZUMENA

■ 1. ariketa

Isabel Otxoak etxeko langileek izango duten egoeraz hitz egingo digu, legeak aldaketa dakar.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean erantzuten hasi.

1. **Zein da lege-aldaketak etxeko langileei ekarriko dien lorpenik nabarmenena?**
 - a) Lorpenik nabarmenena paperaren gainean garatu izana da.
 - b) Paga bat gehiago jasotzeko aukera.
 - c) Gutxieneko soldata osoa lortzeko eskubidea.
2. **Zein da lehengo egoeraren eta gaur egunekoaren arteko alderik nabarmenena?**
 - a) Orain, ordu guztiak ordaindu behar dira.
 - b) Orain egote-orduak ez dira ordaindu behar.
 - c) Lehen egote-orduak ordaintzen ziren, orain ez dira ordaindu behar.
3. **Zer dio Isabel Otxoak ordainketa-moduez?**
 - a) Lehengo moduan izango direla., alderdi guztietatik
 - b) Hilean hilekoa ordaindu behar dela eta aparteko bi ordainsari
 - c) Urteko kopuru minimoak errespetatuta, banaketa nahi den moduan egin daitekeela.
4. **Zer dio Otxoak gutxieneko soldataz eta mantenuaz?**
 - a) Gutxieneko soldadari mantenuaren kostua gehitu behar diogula..
 - b) Gutxieneko soldata baino gutxiago ezin dela ordaindu mantenua aitzakia hartuta.
 - c) Mantenuaren kostua gutxieneko soldadari kendu behar diogula.
5. **Zenbat ordu egiten dituzte batez beste etxeko langileek?**
 - a) 64 ordu.
 - b) 74 ordu.
 - c) 54 ordu.
6. **Zer alde dago Frantziako eta Espainiako legediaren artean?**
 - a) Frantziakoan lo egiteko tokiagatik Espainian baino 71 € gehiago kentzen zaizkio langileari.
 - b) Espainian soldataren %30 kendu ahal zaio etxeko langileari, Frantzian baino askoz gehiago.
 - c) Ez dago alde nabarmenik baten eta bestearen artean.
7. **Zer ezaugarri ditu Frantziako legediak?**
 - a) Lotan gelditu behar duen langileari 71 € kentzen zaizkio hilabeteko.
 - b) Ezinbestean lotan gelditu behar duen langileari ezin zaio soldatatik ezer kendu.
 - c) Ezinbestean lotan gelditu behar duen langileari 71 € kendu ahal zaizkio gehienez..
8. **Frantzian langileari lanlekuan lo egiteagatik kobratu egiten zaio?**
 - a) Kontratuan jasotakoaren arabera.
 - b) Bai, beti kobratzen zaio.
 - c) Ez, ez zaio inoiz kobratzen.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN